

BASAURIKO UDALEKO BARNE ARAUDIA EUSKARA- IKASTAROAK EGITEKO

1. HELBURUAK

Araudi honen helburua da Basauriko Udaleko eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoari atxikitako erakunde autonomoetako langileen hizkuntza-gaikuntzan eragitea eta euskararen erabilera sustatzea. Beraz, aurrerantzean, «Basauriko Udala» aipatzen den guztietan, ulertu behar da izendapen hori erakunde autonomoetako langileei ere badagokiela —izan ere, erakunde autonomoak «ataltzat» jasota daude Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoan—.

Horren guztiaren xedea da, batetik, Basauriko Udalean diharduten langileek dagokien hizkuntza-gaitasuna lortzea, baldin eta beren lanpostuek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituta badute, eta, bestetik, langileen euskara-gaitasuna areagotzea eta ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia gainditzea; euskara gaitasun teorikotik praktikara eramatea, alegia.

Horrek guztiak ahalbidetuko du Basauriko Udalean euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadila.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren ildotik euskara-gaitasuna ahalbidetzeko eta erabilera sustatzeko, langileen hizkuntza-prestakuntzak **hiru ardatz nagusi** izango ditu:

.- **Deialdi nagusia:** Udalak, IVAPekin duen hitzarmenaren barruan, euskalduntzeko ikastaroak eskainiko ditu, langileek hizkuntza-gaitasuna lortze aldera. Ikastaro horiek euskaltegietan egingo dira, betiere hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko helburuarekin.

Langileek ez dute matrikula ordaindu beharrik: IVAPek finantzatuko du, eskatzen diren baldintzak betez gero.

.- **Deialdi osagarria:** urritik ekainera bitarteko ikastaroetarako, eskaera ohiko epean egin ezin izan dutenentzako.

Langileak berak ordaindu beharko du ikastaroaren matrikula, eta, amaieran, Udalak diru kopuru hori itzuliko dio, eskatzen diren baldintzak betez gero, eta, betiere, ikastaroa amaitzen denean langileak Udalean jarraitzen badu.

.- **Trebakuntza:** euskararen erabilera sustatzera eta lanean euskaraz jardutera bideratutako formakuntza. Euskaraz lan egiteko laguntza, estrategiak eta

baliabideak eskainiko zaizkie langileei.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Araudi hau honako hauei aplikatuko zaie:

- karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu mugagabea duten langileak
- bitarteko funtzionarioak eta 6 hilabetetik gorako iraupen zehatza duten bitarteko lan-kontratudunak
- praktiketako funtzionarioak

Udalbatzako kideei eta behin-behineko konfiantzazko langileei trebakuntza-programan parte hartzea eskainiko zaie.

3. PRINTZIPIO OROKORRAK

3.1. Euskararen erabileraren normalizazioa zeharkako helburua denez Basauriko Udal osoan, erakundeak euskara- eta trebakuntza-ikastaroetara joatea ahalbidetuko die langile guztiei, Euskararen Erabilera Normalizatzeko indarreko Plan Estrategikoa betetze aldera.

3.2. Euskara-ikastaroak egiteak dakartzan konpentsazioak hartzea edo lanorduak errekuperatzea arrazionalizazioaren eta zerbitzuaren beharrei erantzutearen printzipioetara egokituko da, betiere euskararen erabileraren normalizazioa lehenatasunezko helburutzat hartuta.

3.3. Dagokion konpentsazioa jasotzeko edo lanorduak errekuperatzeko, eskaera egin beharko da, Enpleguaren Atarian. Konpentsazioa lanaldiaren hasieran edo amaieran egingo da, eta, nolahi ere, berreskuratzeko denbora sortzen den hilabetearen barruan edo hurrengo hilabetean hartu beharko da. Beharrezkoa den kolektiboetan, araubide berezia ezarriko da —besteak beste, txandaka ari diren langileen artean (Udaltzaingoa, HAZ...)—.

3.4 Konpentsatzeko edo berreskuratzeko orduak pilatu ahalko dira, baina, egunean, gehienez ere, lau ordu hartu ahalko dira, lanaldiaren hasieran edo amaieran. Izan ere, Bertaratzea Kontrolatzeko Araudia aldatzen duen Testuak jasotzen duenez, «egunean, gehienez ere, lau ordu baino gutxiagoko ez-betetze berreskuragarriak baimenduko dira bakarrik».

Ildo horretan, kontuan hartu beharko dira 12 urtetik beherako adingabeak edo desgaitasun fisiko edo psikikoak dituzten pertsonak zaintzeko lizentziek eragin ditzaketen lanaldi-murrizketak («Basauriko Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa», 2024ko martxoaren 15eko BOBean argitaratua, 47.artikulua): bermatu beharko da lizentzia horiei atxikita daudenek konpentsazio-orduak baldintza beretan hartu ahal izatea, batez ere lanaldiaren erdikoa izan

daitezkeen murrizketen kasuetan.

Konpentsazio-orduek egiten den lanaldiaren ehunekoarekiko proportzionalak izan beharko dute.

Edozelan ere, orduak pilatuta hartu ahal izateko, dagokion euskaltegiaren bertaratze-ziurtagiria aurkeztu beharko da, hartu nahi den denborari dagokion hilarena.

4. IVAP-EN BIDEZKO DEIALDIAK: DEIALDI NAGUSIA ETA UDAKO DEIALDIA

4.1. Basauriko Udalak, *IVAPekin duen lan-hitzarmenaren*¹ barruan, **bi deialdi mota** eskaintzen ditu:

- **Deialdi nagusia:** urritik ekainera bitarteko euskara-ikastaroen prestakuntza-
eskaintza arautzen du, modalitate guztietan.
- **Udako deialdia:** udako ikastaroen prestakuntza-eskaintza arautzen du,
modalitate guztietan.

4.2. Horiei buruzko informazio osoa IVAPek urtero ematen dituen eta EHAAn argitaratzen diren ebazpenetan jasotzen da:

- Urritik ekainerako eskolaratzea arautzen duen ebazpena **maiatzean** argitaratzen da.
- Udako eskolaratzea arautzen duen ebazpena **maiatzean** argitaratzen da, IVAPen web-orrian.

5. LANGILEEN KONPROMISOAK, IVAP-EN DEIALDIETAN (NAGUSIA) ETA DEIALDI OSAGARRIAN PARTE HARTZEARI DAGOKIONEZ

5.1. Programatutako ikastaroetara joan beharko dute nahitaez, araudi honetan ezarritako baldintzei jarraituta.

5.2. Dagokion euskaltegiko araudia, egitaraua, eta irakaskuntza- eta ebaluazio-sistema onartu eta bete beharko dituzte. Era berean, taldez edo mailaz aldatu beharko dute, irakasleak edo euskaltegiko zuzendaritzak hala erabakiz gero.

5.3. % 80ko bertaratzea izan beharko dute, gutxienez. Beraz, behin ikastaroa hasita, arazoitu gabeko hutsegiteek ordu-kopuru osoaren % 20 gainditzen badute, IVAPek

¹ 2005eko azaroaren 30eko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak ezartzen dituena.

baja eman ahalko die, eta langileek ikastaroa utzi egin beharko dute.

Deialdi osagarrian parte hartzen dutenen kasuan, klase-ordu kopuru osoan % 20tik gorako justifikatu gabeko hutsegiteak eginez gero, Udalak ez die matrikularen zenbatekoa itzuliko.

5.4. Langileek konpromisoa hartuko dute ikasturtearen hasieran Euskara Atalari matrikulazioari buruzko datuak emateko, bai eta hileko bertaratzeari eta ebaluazioari buruzkoak ere.

5.5. Langile batek ikastaroa utzi behar badu, IVAPen webguneko inprimakia bete eta Euskara Atalean aurkeztuko du, atal horrek IVAPen baja izapidetzeko. Dagokion euskaltegira ere kopia bidali beharko du langileak: horrela bakarrik eten ahalko du bere ordu-kreditua, zeina IVAPen baja emateko eskaera aurkezten den datatik aurrera etengo baita.

5.6. Langileek, behar adinako ezagutza-maila dutenetik aurrera, beren lanpostuari dagokion **hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetara aurkeztu beharko dute**. Horretarako, *64/2008 Dekretua*² hartuko da erreferentziatzat, eta, horrekin batera, dagokion euskaltegiak horri buruz egiten duen balorazioa.

5.7. Era berean, ezagutza-maila nahikoa egiaztatu ondoren, **langileek euskara lan-eta zerbitzu-hizkuntza gisa erabiliko dute, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoan parte hartuko dute modu aktiboan, eta, hala badagokio, Udalak garatzen duen trebakuntza-programaz baliatuko dira.**

5.8. Langileei euskara-ikastaroetara joateko eskubidea eten ahal izango zaie, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetan edo/eta Plan Estrategikoan parte hartzeari uko egiten badiote behin baino gehiagotan.

6. ORDU-KREDITUAK ESLEITZEKO ETA ZENBATZEKO IRIZPIDEAK

6.1. Ordu-kreditua da langile bakoitzari finantzatzeko zaion hizkuntza-prestakuntzako gehieneko ordu-kopurua. Ordu-kreditu hori IVAPekin eskolatzen diren langile guztiei ezartzen zaie.

6.2. Basauriko Udalak lankidetzeta-hitzairena dauka IVAPekin, atxikitako langileentzat. Euskara-ikastaroak antolatzeko, **lanorduetako eta lanorduz kanpoko** ikastaroei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen *Aginduari*³ jarraituko zaio.

² 64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeakoa.

³ 2005eko azaroaren 30eko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituena. EHAA: 2005-12-19; 239. zenb.

EGIAZTATU BEHARREKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

	HASIERAKO MAILA	HE1/B1	HE2/B2	HE3/C1	HE4/C2
Euskalduntzea	101	1.210	1.770	2.430	2.730
	102	1.030	1.600	2.210	2.510
	103	890	1.330	2.020	2.320
	104	770	1.150	1.810	2.110
	105	550	930	1.530	1.830
	106	490	760	1.210	1.510
	107	380	610	1.190	1.490
	108	320	490	880	1.180
	109	210	420	730	1.030
	110	160	370	590	890
	111	110	210	470	770
	112	60	160	340	640
Alfabetatzea	201	320	350	500	800
	202		320	370	670
HE4/C2	401				300

6.3. Ordu-kreditua kalkulatzeko, aintzat hartuko dira langilearen hasierako maila eta egiaztatu beharreko hurrengo hizkuntza-eskakizuna (langileak egiaztatu duen azken hizkuntza-eskakizunaren hurrengoa).

6.4. Ordu-kredituaren zenbaketa ez dago ikaslearen bertaratzearen menpe. Izan ere, ordu errealak aintzat hartuta egingo da: emandako orduak zenbatzen dira, ez ikasleak hartutakoak. Zenbaketa hori ikaslearen taldearen lehenengo klase-egunetik ikasturtea amaitu arte egingo da, edota, hala badagokio, ikasleak ikastaroa behin betiko uzten duen unera arte.

6.5. Langile bati geratzen zaion saldoa kalkulatzeko, nahikoa izango da honako kenketa hau egitea: une bakoitzean dagokion ordu-kreditua ken hasiera-mailatik emandako eskola-orduak:

$$\text{Saldoa} = (\text{ordu-kreditua}) - (\text{emandako orduak})$$

6.6. Ikastaro batean hasi ahal izateko, ezinbestekoa da saldo positiboa edukitzea, saldo hori agortzean egon arren. Behin ikastaroa hasita, langileak saldoa guztiz agortzen badu ere, eskolekin jarraitu eta ikastaroa amaitu ahal izango du.

6.7. Esleitutako ordu-kreditua agortzen zaionetik ikastaroa amaitu bitartean, ikasleari emandako orduak zenbatu eta, hala badagokio, kendu egingo zaizkio hurrengo hizkuntza-eskakizunari dagokion ordu-kreditutik.

6.8. Udako ikastaroak ere arau orokorraren arabera zenbatuko dira, hau da, udako ikastaroan emandako eskola orduak ere ordu-kreditua kontsumituko dute.

6.9. Ordu-kreditua ziurtatzeko, maiatz/ekaineko azterketen emaitzak argitaratzen direnean, IVAPEk ordu-kredituaren kontrola egingo du eta saldo negatiboan jarraitzen duten eskaera guztiak bertan behera utziko ditu.

7. IVAP-EN BIDEZKO IKASTAROAK

7.1 Ikasturtean zehar, urritik ekainera bitartean, egin ahal diren ikastaroak HABEK homologatu eta IVAPEk onartutakoak izango dira. Ikastaro horiek aurrez aurre edo autoikaskuntzaren bidez egin ahalko dira, betiere IVAPEk deialdi bakoitzean egiten duen eskaintzaren arabera.

IVAP-EN MATRIKULA-ORRIAREN BIDEZ FINANTZATUKO DIREN IKASTAROAK⁴

LANORDU BARRUKO IKASTAROAK

1) Aurrez aurreko ikastaroak

Orduak, egunean	Egunak, astean	Orduak, astean	Orduak, guztira
2	4	8	Gutxienez, 240
2	5	10	Gutxienez, 300
2 (HE4/C2)	3	6	Gutxienez, 180

LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK

1) Aurrez aurreko ikastaroak (HE1/B1, HE2/B2 eta HE3/C1) Urritik ekainera bitartekoak 2/3 ordukoak

Orduak, egunean	Egunak, astean	Orduak, astean	Orduak, guztira
2	5	10	Gutxienez, 300
2	4	8	Gutxienez, 240
2	3	6	Gutxienez, 180
2,5	3	7,5	Gutxienez, 240
3	3	9	Gutxienez, 270
3	2	6	Gutxienez, 180

⁴ Moduluak alda daitezke, IVAPEk deialdi bakoitzean eskaintzen dituen ikastaroekin bat etorruta.

2) Aurrez aurreko ikastaroak (HE4/C2)

Orduak, egunean	Egunak, astean	Orduak, astean	Orduak, guztira
2	3	6	Gutxienez, 180

3) Autoikaskuntza

Ikasturte osokoa: gutxienez, 190 eskola-ordu, matrikula bakoitzeko

7.2. Udako ikastaroak uztailean, abuztuan eta irailean egingo dira, IVAPek deialdi bakoitzerako ezarritako baldintzei jarraituta.

8. EUSKARA-IKASTAROAK EGITEA LANORDUETAN (IVAP)

8.1. Beren lanpostuari dagokion derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe daukaten, edo derrigortasun-data ezarrita duten lanpostu baten titularrak diren langileek lanaldiaren barruan egingo dituzte euskara-ikastaroak, baldin eta ordu-kreditua badute. **Langile horiek eskubidea eta erabateko lehentasuna izango dute euskara-ikastaroak lanorduetan egiteko.**

8.2. Euskara-ikastaroetara joateko orduak ohiko lanordutzat hartuko dira. Ikastaroa ematen den zentroa «lantokitza» joko da ondorio guztietarako, eta, beraz, bertaratze- eta puntualtasun-falta guztiak lantokian bertan egindakoen parekotzat hartuko dira.

8.3. Lanaldiaren barruan euskara-ikastaroetara doazen langileak liberatuta egongo dira ikastaroak irauten duen orduetan zehar, gehi eguneko 30 minutu joan-etorrietarako, baldin eta joaten diren euskaltegia Basaurin edo langilearen bizilekuan ez badago. Modu berean jokatuko da autoikaskuntzako ikastaroen kasuan.

9. EUSKARA-IKASTAROAK EGITEA LANORDUETATIK KANPO (IVAP ETA DEIALDI OSAGARRIA)

9.1. Euskara-ikastaroak lanalditik kanpo egin ahalko dituzte:

- derrigortasun-datarik gabeko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu bat betetzen duten langileek
- lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ondoren, goragoko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi duten langileek
- ikastaroetara joateko ordu-kreditua agortu duten langileek, nahiz eta oraindik

egiaztatuta ez izan beren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna (**Deialdi osagarria**)

d) beren lanpostuari lotutako hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-dataren erregimen orokorra betetzetik salbuetsitakoek

9.2. Lanalditik kanpo euskara-ikastaroetara joaten diren langileek ikastaroaren iraupenaren erdiaren baliokidea den ordu-konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango dute, gehi eguneko 30 minutu joan-etorrietarako, baldin eta joaten diren euskaltegia Basaurin edo langilearen bizilekuan ez badago. Modu berean jokatuko da autoikaskuntzako ikastaroen kasuan.

Bajan edo oporretan egonda euskara-klaseetara joanez gero, ordu horiek ez dute konpentsaziorako eskubiderik sortuko.

10. IVAP-EN BIDEZKO DEIALDIAK: EUSKARA-IKASTAROAK EGITEKO ESKAERAK ETA FINANTZAKETA

10.1. Basauriko Udalak eta IVAPek sinatutako lankidetzeta-hitzarmenari jarraituz, IVAPek bere gain hartuko du euskara-ikastaroen matrikularen kostua.

10.2. Ikastaroak barnetegian egiten badira, IVAPek bere gain hartuko ditu ostatua eta mantenua. Bestelako gastuak, besteak beste euskaltegira joateak eta material didaktikoa erosteak eragindako gastuak, ez dira IVAPen kontura izango.

10.3. Deialdi nagusiari buruzko informazioa maiatzean zabalduko du Euskara Atalak Udaleko langile guztien artean, Zerrenda Orokorraren bidez, eta Intranetean ere izango da eskuragarri. Baliabide informatikorik ez duten tokietan, Euskara Atala arduratuko da langileei informazioa helarazteaz, egokitzen jotzen duen kanala erabilita.

10.4. Urritik ekainera arteko eta udako euskara-ikastaroak egiteko eskaerak maiatzean egingo dira, IVAPek urtero ezarritako epearen barruan, eta Euskara Atalaren bidez izapidetuko dira.

10.5. Ikastaro horiek IVAPek Euskara Atalari helarazitako matrikula-orriaren bidez finantzatuko dira. Matrikula-orria agiri ofiziala eta pertsonala da: langilearen izen-abizenak jasotzen ditu, eta orri hori ezin du beste inork erabili.

10.6. Euskara Atalak matrikula-orria emango dio interesdunari, berak aukeratutako euskaltegi publiko edo pribatu homologatuan matrikula dadin, soilik HABEK homologatu eta IVAPek onartutako modulan.

10.7. Matrikula egiteko, ezinbestekoa izango da matrikula-orria dagokion euskaltegian aurkeztea ikasturtea hasi baino lehen, IVAPek horretarako zehaztutako epearen barruan. **IVAPek ez ditu ordainduko epez kanpo aurkeztutako matrikula-orriak.**

10.8. Langilea ez bada inongo euskaltegian matrikulatzen, ahalik eta lasterren itzuli beharko dio matrikula-orria Euskara Atalari, hark IVAPi helarazteko.

10.9. Matrikula-orria itzultzea ezinezkoa gertatuz gero, apurtu edo galdu delako, langileak Euskara Atalari jakinarazi beharko dio ez dela inon matrikulatu, Euskara Atalak IVAPi jakinarazteko.

10.10. Langileak matrikula-orria dagokion euskaltegian aurkezten duen unetik aurrera, matrikulatuta egongo da, eta IVAPek ordaindu egin beharko du langilearen matrikula hori.

10.11. Euskara Atalak, beharrezko egiaztapenak egin ostean, atalburuei, Giza Baliabideen Atalari eta erakunde autonomoei jakinaraziko die beren ardurapeko zein langile matrikulatu den deialdi nagusian.

11. DEIALDI OSAGARRIA: URRITIK EKAINERA BITARTEKO EUSKARA- IKASTAROAK EGITEKO ESKAERAK ETA FINANTZAKETA

11.1. Deialdi osagarriak helburu du ohiko aldian matrikulatu ezin izan duten, edo ordu-kreditua agortua duten langileei erantzutea. Hori dela eta, eskabidearekin batera derrigorrezkoa izango da adieraztea zein den deialdi osagarrian parte hartzeko arrazoia, baita arrazoi hori egiaztatzeko beharrezko agiriak aurkeztea ere (izendapena, opor-egoeran egon izanaren ziurtagiria, aldi baterako baja...).

11.2. Dagokion urteko deialdi osagarrian parte hartzen duten langileek ezin izango dute hurrengo deialdi osagarrian parte hartu, ez bada salbuespenezko egoera batean daudela. Beraz, kasu horretan, euskara ikasten jarraitu nahi duen orok matrikula egin beharko du IVAPen ohiko deialdian.

Salbuespenez, deialdi osagarrian parte hartzen duen langile bat bajan egon eta euskara ikasteari utzi behar badio, aukera izango du hurrengo ikasturtean deialdi horretan parte hartzeko. Halako kasuek Euskara Atalaren oniritzia beharko dute.

11.3. Basauriko Udalak, deialdi osagarrian, HABEk homologatutako ikastaro guztiak onartuko ditu.

11.4. Deialdi osagarriari buruzko informazioa irailean zabalduko du Euskara Atalak Udaleko langile guztien artean, Zerrenda Orokorraren bidez, eta Intraneten ere izango da eskuragarri. Baliabide informatikorik ez duten tokietan, Euskara Atala arduratuko da langileei informazioa helarazteaz, egokituz jotzen duen kanala erabilita.

11.5. Deialdi osagarrian izena emateko, langileek Intraneten dagoen edo mezuarekin batera jasotzen duten eskaera-orria bete, eta Euskara Atalera bidali edo han aurkeztu beharko dute.

11.6. Eskaera-orriarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte langileek, nahitaez:

- matrikularen ordainagiria. Aurkeztu ahal da eskaera-orriarekin batera edo aurrerago, ikasturtea amaitu aurretik.
- izendapenaren edo kontratuaren kopia, deialdia egiten den urtearen amaiera arteko iraupena duela egiaztatzeko.
- erantzukizunpeko adierazpena, beste dirulaguntzarik edo bekarik jaso ez duela adierazteko eta gainfinantzaketa ekiditeko.

11.7. Ikasturte amaieran Euskara Atalak berariaz egindako bertaratze-, maila- eta aprobetxamendu-ziurtagiria bete beharko du dagokion euskaltegiak.

11.8. Euskara Atalak, beharrezko egiaztapenak egin ostean, atalburuei, Giza Baliabideen Atalari eta erakunde autonomoi jakinaraziko die beren ardurapeko zein langile matrikulatu den deialdi osagarrian. Era berean, ikastaroa amaitutakoan, Giza Baliabideen Atalari eta dagokion erakunde autonomoari txostena bidaliko die, deialdi osagarrian parte hartu duten langileei matrikularen zenbatekoa nominan ordain diezaieten.

12. TREBAKUNTZA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren ildotik euskararen erabilera sustatzeko asmoz, trebakuntza berezitua eskainiko zaie gutxieneko gaitasuna duten guztiei, langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko, euskara erakundearen zerbitzu-hizkuntza izateko eta aurrerapauso sendoak emateko euskara lan-hizkuntza ere izan dadin.

Horretarako, trebatzaileen laguntza, gidaritza eta orientabidea izango dute langileek. Laguntza hori idatzizko komunikaziora zuzenduta egongo da, baina, beharrezkoa denean, ahozko komunikazioari dagokion berariazko trebakuntza baztertu barik.

Trebakuntza horren bidez, udal langileek egunero erabiltzen dituzten administrazio-idazki errealak kalitate-parametro batzuen arabera sortzeko edota egokitze gaitasuna hobetuko dute, testu zuzenak, egokiak eta argiak sortu ahal izateko. Horrez gain, trebatzailearen eta trebagaiaren artean helburu zehatz eta argi batzuk finkatu eta jasoko dira, bakoitzaren gaitasunaren eta egoeraren arabera.

12.1. Trebakuntza-saioak lantokian bertan eskainiko dira, astean behin eta lanaldiaren barruan. Saioek ordu eta erdiko iraupena izango dute, eta hiru trebakuntza mota eskainiko dira:

- **Taldekako trebakuntza:** maila bereko edo berdintsuko langileek osatuko dute, eta helburu nagusia izango da euskaraz lan egitea edota zerbitzua euskaraz

eskaini ahal izatea.

.- **Banakako trebakuntza:** norberaren beharretara egokitutakoa.

.- **Gai zehatzei buruzko ikastaroak:** Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa ezartzeko prozesuari lotuta, arlo eta ataletan identifikatutako beharrian espezifikoei erantzuteko ikastaroak antolatu ahalko dira, eta Euskara Atalak ere ikastaro bereziak bultzatu ahalko ditu («Lehen hitza euskaraz», «Itzultzaile neuronal», «Hizkera argi eta zuzena» eta abar).

12.2. Trebakuntza-saioetan izena emateko, Euskara Atalak, ikasturte hasieran, trebakuntza-programaren eskaintza egingo du, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren ezarpenari jarraituz.

Trebakuntza-saioetan parte hartzeko, Zerrenda Orokorrera bidalitako mezuarekin batera joango den eskaera bete beharko du langileak (Intraneten ere egongo da eskuragarri), dagokion ataleko buruak baimena eman ondoren, eta Euskara Atalari helarazi beharko dio, bidera dezaten.

12.3. Salbuespenez, sei hilabeteko edo gutxiagoko kontratuak dituzten langileek ere trebakuntzan parte hartu ahal izango dute, beren zereginetarako egokia dela jotzen bada eta, betiere, atalburuaren oniritziarekin.

Araudi honek indargabetu egiten ditu aurreko araudiak eta indarrean egongo da berau indargabetu arte.

19/2024 Dekretu⁵ berriaren ezarpen-eremuan sektore publiko osoa sartzen da, baita orain arte kanpoan zeuden gure sozietate publikoak ere: Behargintza eta Bidebi. Erakunde horiek zazpigarren eta zortzigarren plangintzaldiak baliatuko dituzte dekretu horretara egokitzeko, hau da, 10 urte; eta, behin hala eginda, eta haiek ados egonez gero, sozietate publikoetako langileei ere aplikatuko zaie araudi hau.

⁵ 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.